

IDEIA FINKOAK

Marc Egea

Eusk: Ele txera

CRIS eta **LAURA**, gauero taberna berean garagardo bat hartzera joaten diren lagunak dira. **CRIS** zerbitzariarekin txora-txora eginda dago.

LAURA: Ez zagon oso adi, atzo ile beltza heraman eta gaur ilehoria, baina ilehori-horia... Eta esan dun: "Hau aldaketa". Ez din esan gustuko dinanik. Tira, zuzena, heziera onekoa. Seguru, gutxienez, berrehun pertsonak gauza bera esan dinatela, gaur, eta, zer izango dun, denek hirekin txora-txora eginda zaudenala? Ezer ez, ahaztu, no. Ez din begirik bota, ezin hobeto etorri baitzaion iruzkina egiteko... beti egiten baitin iruzkin bat, konturatu haiz? Beti esaten din zerbait: "Kaixo, bi kaña?"... eta pum, iruzkina. Batez ere aste hasieran, ohartuko hintzen. Asteburuan, larri zabilen, eta ez zagon iruzkin askotarako, baina astelehenetan, astearteetan...: "Eguna gero eta laburragoa da, e", "Hozten ari da"... "Hau aldaketa"... Ez, ez zagon hitaz oso adi, maitea; tira, normal, ez bereziki adi. Zuzena izaten saiatzen dun. Bezeroekin hitz egiten dunanean -konturatu haiz?- erdi-irribarre antzeko bat jartzen din, hala (*Irribarre erdia jartzen du*) modu egokian, zuzena izan dadin. Jarrera bat dun; izan ere, konturatzen bahaiz, lagun bat etortzen dunanean, lagun bat etorri dunanean, aurpegia aldatzen zaion, beste era batera ikusten zaion, solteago, irribarre egiten din, baina beste modu batean, hemen bi elutxa txiki markatzen zaizkion -e bai-, oso karan zagon, ikusi dun? (*Konturatzen da laguna zalantzazko begirada bat botatzen ari zaiola*) Ez haiz konturatu?

Ele txera
munduarek zabalduz

